

OREINA

66

SSIFF

NEW DIRECTORS
DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
2018

TXINTXUA FILMSEK aurkezten du:

KOLDO ALMANDOZ EN FILM BAT





AURKIBIDEA

SINOPSIA	3
FILMAREN FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA	4
ZUZENDARIAREN OHARRAK	5
ZUZENDARIA	6
AKTOREAK	7
FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	9
ARGAZKIA	10
MUNTAKETA	11
JATORRIZKO MUSIKA	12
EKOIZTETXEA	13
HARREMANETARAKO DATUAK	14

SINOPSISIA

Khalil, industrialguneak, ibaiak eta padurak bat egiten duten hiriko periferian bizi den gazte deserrotua da. Khalilek ahal duen moduan egiten du aurrera eta ibai ertzeko etxea anaiarekin konpartitzen duen furtibo zahar batekin pasatzen ditu egunak. Mareek, paduraren uhertzean, maitasuna eta desamodioa, kidetasuna eta mendekuaren denbora markatzen dute.





FITXA ARTISTIKOA

Khalil	Laulad Ahmed
Jose Ramon	Patxi Bisquert
Martin	Ramon Agirre
Basozaina	Iraia Elias
Joana	Erika Olaizola

FITXA TEKNIKOA

Gidoia eta zuzendaritza	Koldo Almandoz
Ekoizlea	Marian Fernandez Pascal
Argazki zuzendaria	Javier Agirre Erauso
Muntaia	Laurent Dufreche
Musika	Elena Setien eta Ignacio Bilbao
Arte zuzendaria	Mikel Serrano
Soinua	Alazne Ameztoy eta Xanti Salvador
Makillajea eta ile-apainketa	Kizkitza Retegi
Jantziak	Leire Orella

DATU TEKNIKOAK

88 Min / Kolorea / J.B. EUSKERA / Scope / DOLBY 5.1

ESTREINALDIA ZINEMA ARETOETAN

2018ko irailaren 28an



ZUZENDARIAREN OHARRAK

Oreina, urteetan ibai ertzeko errepidean eginiko joan etorrien fruitua da. Espazio berezi honetan urtetan gertatu den eraldaketa behatzearena. Espezie eta bizitzeko modu berri batzuk agertu (landareak, fauna eta jendea) eta beste batzuk desagertzearena.

Oreina ibaia film bat da. Likidotik du gehiago solidotik baino. Pentsamendu iheskorrei irekia, periferia geografiko eta humanoak erakusten dituen film bat: adiskidetasuna, traizioa, ezkutuko maitasun ezinezkoak, ezberdinen arteko elkartasuna, mendekua... Oreina lanarekin, ikusleak zinematik ateratzean errealtatea eten ez denaren sentsazioa izatea lortu nahi dugu. Pantailan ikusi duenak ez duela bizitza ahaztu. Errealtateak eta zoriak filman parte har zezan utzi dugu. **Oreina** filmak ikuslearen adimena eta sentikortasuna bereganatzea espero du.

Aktore profesional zein ez-profesionalekin filmatua esku-hartzerik jasan ez duten paisaia eta leku errealetan, **Oreina** filmean lausotu egiten da fikzioa eta errealtatea bereizten dituen muga. Obra honen eszenaratzean eragin handiagoa izan du inpresionismoak hiperrealismoak baino.

Periferia geografiko eta sozialean bizi dira pertsonaiak, eta ikusleei gonbita egiten zaie pertsonaia horiekin batera ibil daitezen, klixek eta aurreritziak sahiestuz. Hala ere pertsonaiak maitatzeak ez du esan nahi egiten duten guztia barkatu behar diegunik.

Oreinak ez du inoiz gidoi finkorik izan. Film honetan intuizioa eta ziurtasuna elkarrekin nahasten dira, batu egiten dira, padurako ur gazia eta ur geza bezala.

Oreina egiterakoan, funtsezkoa zen manipulazioa saihestea eta guztia kontatu nahi izateko behar horretatik ihes egitea. Kontatu beharrean, iradoki egiten da. Erakutsi beharrean, ezkutatu.





KOLDO ALMANDOZ

Donostia, 1973

Kazetaritza eta ikus-entzunezkoetan lizentzaturia. Azken 25 urteetan pelikulak zuzendu ditu. Bere lanak nazioarteko zinemaldi ugarian aukeratuak eta sarituak izan dira, besteak beste: Semaine de la Critique Cannes, Rotterdam Film Festival, Donostiako Zinemaldia, Gijón Film Fest, Bafici, Festival dei Popoli, FiCali, ... The Balde aldizkariako sortzaile eta zuzendari izan zen 12 urtez (2002-2014), Iruñako Punto de Vista festivaleko programatzaile (2015-2017). Irrati fikzio egilea. Editore. Kultur eta arte proiektu ezberdinen sortzaile eta zuzendaria. Egun, bere zinegile lana, zine irakaskuntzarekin tartekatzen du.

FILMOGRAFIA (hautatuta)

LUZEMETRAIA

Sîpo Phantasma (2016. Zuzendaria, gidoia)

LABURMETRAIAK

Plâgan (2017. Zuzendaria, gidoia)

Hubert Le Blonen azken hegaldia (2014. Zuzendaria, gidoia)

Deus et machina (2012. Zuzendaria, gidoia)

Ahate pasa (2009. Zuzendaria, gidoia)

Columba Palumbus (Uso Basatia) (2007. Zuzendaria, gidoia)

Midori (2006. Zuzendaria, gidoia)

Amuak (2004. Zuzendaria, gidoia)

Belarra (2002. Zuzendaria, gidoia)

Razielen itzulera (1997. Zuzendaria, argazkia, gidoia, aktorea)





LAULAD AHMED

Aaiun, Mendebaldeko Sahara,
Saharako Errepublik Arabiar Demokratikoa, 1994

Khalil: *Bizirauteko lehian*

Lauladek Khalil gazte deserrotuaren papera egiten du. Hiriaren periferian bizi da, industrialdeak ibaiarekin eta padurarekin bat egiten duten tokian. Droga-salerosketak, maitasun-kontuetako desengainuek eta lagun zahar batekin duen adiskidetasunak markatzen dute bere bizitza.

Errefuxiatu sahararra, bere bizipen propioak filmeko pertsonaiarengan islatzen dira. Paper hori izan da film batean parte hartzen duen aurreneko aldia. Eta beretzat esperientzia guztiz berria izan arren, Lauladek konpromiso irmoa erakutsi zuen entseatu eta ikasteko garaian. Hasiara-hasieratik izan da beste talde-kide bat, eta uneoro lagundu du filmaketan giro ona sortzen.



PATXI BISQUERT

Zizurkil (Gipuzkoa), 1952

José Ramón: *Bertako animalia*

Patxi Bisquert Jose Ramon izango da filmean, bizileku duen naturagune basatian guztiz integratua dagoen paduratar bat. Bakartia eta isila, ezkutuko arrantzan aritzen da. Gauero-gauero itsasadarrera irteten da txalupan Khalilekin, angula preziatuen bila.

1981ean aritu zen zinemagintzan lehen aldiz, Imanol Uriberen *La fuga de Segovia* filmean. *La conquista de Albania* (Alfonso Ungría 1983) eta *Akelarre* (Pedro Olea, 1984) filmetan lan egin eta gero, Montxo Armendarizen *Tasio*ren bidez lortu zuen errekonozimendua (1984), film horretan egindako lanari esker eskuratu baitzituen gizonezko interpretaziorik onenaren saria Tenerifeko Zinema Ekologikoaren eta Naturari buruzko Zinemaren Jaialdian eta gizonezko interpretazio onenaren saria Bordeleko Zinema Espainiarraren Jaialdian.

Hogeita hamar bat filmetan hartu du parte eta telebistan eta antzerkigintzan ere aritu da. Horretaz gain, gidoilari, produktore eta zuzendari gisa ere egin du lan.

FILMOGRAFIA (hautatuta)

- Oreina* (Koldo Almandoz, 2018)
- Migas de pan* (Manane Rodríguez, 2015)
- A Esmorga* (Ignacio Vilar, 2014)
- Celda 211* (Daniel Monzón, 2009)
- Bosque de sombras* (Koldo Serra, 2006)
- Silencio roto* (Montxo Armendáriz, 2001)
- Agurra* (Iñaki Elizalde, 1996)
- Havanera 1820* (Antoni Verdaguer, 1992)
- Ke arteko egunak* (Antxon Ezeiza, 1990)
- El anónimo... ¡vaya papelón!* (Alfonso Arandia, 1990)
- El acto* (Héctor Faver, 1989)
- Gran Sol* (Ferran Llagostera, 1989)
- Un negro con un saxo* (Francesc Bellmunt, 1989)
- Tasio* (Montxo Armendáriz, 1984)
- Akelarre* (Pedro Olea 1984)
- La conquista de Albania* (Alfonso Ungría, 1984)
- La fuga de Segovia* (Imanol Uribe, 1981)



RAMON AGIRRE

Donostia, 1954

Martín: *Animalia migratzailea*

Ramon Agirre Martin izango da, liburu artean bizi den irakasle bat. Martin aspaldi joan zen atzerrira, eta duela gutxi itzuli da berriz etxera. Familiako etxean bizi da Jose Ramon anaiarekin, baina urteak daramatzate elkarri hitzik esan gabe. Baina, bat-batean, gazte atzerritar bat iritsiko da haien bizitzara. Orduan hautsiko da isilaldi luzea.



Arkitektura ikasi zuen Valladoliden eta Donostian, eta interpretazio-ikasketak egin zituen Antzertin, Eusko Jaurilaritzaren Arte Dramatikoko Eskolan. Aktore gisa lanean aritu da zineman, antzerkian eta telebistan 1983an Bruno Carrièrerek telebistarako egin zuen *Txirula Miresgarria* filmean debuta egin zuenetik.

Antzerkigintzari dagokionez, 35 produkzioetan hartu du parte Mario Gas, Ramón Barea, Fernando Bernués eta beste zuzendari batzuen esanetara. Telebistan, 50 lanetan baino gehiagotan aritu da, Fernando Colomo, Antonio Conesa edo García Berlanga zuzendariarekin, besteak beste.

FILMOGRAFÍA (seleccionada)

- Oreina* (Koldo Almandoz, 2018)
- Handia* (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2017)
- Julieta* (Pedro Almodóvar, 2016)
- La herida* (Fernando Franco, 2013)
- Amor* (Michael Haneke, 2012)
- Baztan* (Iñaki Elizalde, 2010)
- Aupa Etxebeste!* (Telmo Esnal, Asier Altuna, 2004)
- Frío sol de invierno* (Pablo Malo, 2003)
- Héctor* (Gracia Querejeta, 2002)
- La hora de los valientes* (Antonio Mercero, 1998)
- El día de la bestia* (Álex de la Iglesia, 1995)
- Ander eta Yul* (Ana Díez, 1988)
- 27 horas* (Moncho Armendáriz, 1986)
- Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985)





IRAIA ELÍAS

Zarautz (Gipuzkoa), 1980

Basozaina: *Harraparien harraria*

Iraiak basozainaren papera egingo du. Profesionala da. Parkea zaintzea da bere lana, eta horregatik arituko da Jose Ramon eta Khalilen ezkutuko ibilaldien atzetik, ez du ezer pertsonalik haien kontra. Harraparien harraria da. Errespetua nahi du, besterik ez.

Irakasle-ikasketak egin ditu eta Hezkuntza Berezian espezializatu da. Horrez gain, pedagogia sistemikoko masterra egin du, eta clown, dantza, bikoizketa eta antzerkigintzako prestakuntza jaso du Estatuko hainbat zentrotan eta Buenos Aireseko antzerkigintzaren eta mugimenduaren nazioarteko CABUIA eskolan (Argentina).

Aktore eta sortzaile gisa antzerkian 10 urteko ibilaldia egin eta gero, zineman estreinatu zen **Amama** filmarekin (Asier Altuna, 2015). Lan horri esker, emakumezko aktore berri onenaren Goya Sarirako izendapena lortu zuen 2016an. Paper horrekin zinemagintzako idazleen elkartearen izendapena ere erdietsi zuen, eta 2015eko emakumezko aktore berri onenaren Golden Cinema saria irabazi zuen.

Azkenaldian antzerkigintzako zenbait produkzioetan egin du lan: **A lurpean** (Amancay Gaztañaga, 2018), **Agur eta dolore** (Teatro Ttak, Kamikaz, 2018), **Sherezade eta tipularen azalak** (Compañía Vaivén y Chapitô, 2018), **Zuek** (Rouge Eléa, 2015).

FILMOGRAFÍA

Neoi argiak (Maidier Oleaga, 2018)
Oreina (Koldo Almandoz, 2017)
Amama (Asier Altuna, 2015)

ERIKA OLAIZOLA

Azpeitia (Gipuzkoa), 1989

Joana: *Animalia kaiolatua*

Erikak Joanaren papera egingo du. Neska gazte bat da, gazteegia harrapatuta egoteko, gustatzen ez zaion lan batean aitarekin eta herriko gazte guapo eta dirudunarekin duen harremanean. Ihes egin nahi du. Borroka bizian dago, gauza bat egin nahi duelako baina guztiek beste zerbait espero dutelako. Khalil gustatzen zaio, baina uste du harreman hori ez dela inora iritsiko.

Andoingo Zinema eta Bideo Eskolan errealizadore-titulua eskuratu eta gero, Erikak bere prestakuntza osatu du hainbat ikastarorekin (interpretazio-ikastaroak ingelesez, gorputzaren poetikari edo maskarei buruzkoak) eta arte eszenikoen Adel Artedrama laborategian parte hartu du 2011 eta 2014 arteko edizioetan.

Telebistako **Goenkale** (Olatz Beobide, 2012) eta **Conociendo el País Vasco** (Producciones Baule, 2006/07) produkzioetan egin du lan. Antzerkigintzan ere aritu da: **Lur** (Getari Etxeragai, 2018), **Francoren bilobari gutuna** (Ximun Fuchs, 2016/17), **Euli giro** (Colectivo Kamikaz, 2014), **Traganarru** (Urki Muguruza, 2013), **Lotsagabe** (Dorleta Urretabizkaia, 2011), **Eguzkilore** (Grupo Hartzaka, 2009/12), **Zutani** (Erika Olaizola, 2012).

FILMOGRAFÍA

Oreina (Koldo Almandoz, 2017)
ZUL O (Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga, 2016)
Los tontos y los estúpidos (Roberto Castón, 2013)

Padura

Saria padura, Oria ibaia itsasoratzen den eremuko hezegunea da Oreina filmaren agertokia. Periferiako eremu bat, hiria, industrialdea eta natura basatia elkartzen diren gunea. Paisaia eklektiko honetan itsasaldiek eta uraren joan-etorriak markatzen dute denboraren joana. Bertako biztanleen bizibide tradizionala nekazaritza eta angularen gaueko arrantza izan dira, baina azken jarduera hori debekatua dago gaur egun. Flora eta fauna autoktonoaren eta inbaditzailearen bizitoki den igarobide bat, kanpotik iritsitako pertsonaien eta ihes egiteko irrikan daudenen elkargunea.





FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Oreinaren filmazioak sei asteko iraupena izan zuen eta 2017ko udazkenean egin zen.

Lana Euskal Herriko 60 profesional teknikok eta artistak baino gehiagok osatutako lantalde batek egin zuen Gipuzkoako hainbat lokalizaziotan: Aginaga, Usurbil, Orio, Donostia, Zubieta, Oiartzun eta Nafarroa: Elcano.

Oreinaren filmaketa-gune nagusia Aginagako baserri bat da, Saria paduraren ondoan, Oria ibaiaren itsasadarraren ezkerreko ertzean. Espazio horrek paisaiaren aldeko potentzial ekologiko handia du, eta bertan filmatu ziren barneko eta kanpoko eszena gehienak.

ARGAZKIA

JAVIER AGIRRE ERAUSO

Irun (Gipuzkoa), 1975

Komunikazioen Elektronikako Teknikari, Irudi eta Soinu Teknikari eta Argazki Zuzendaritza ikasketak egin ostean, film luzeetan eta laburretan lan egiten hasi zen, baita publizitate-spotetan eta bideoklipetan ere.

Publizitatearen arloan, spotetan lan egin du, besteak beste, EITB, Caja Rural, Kutxabank, BBK, Trafikoa, Errenta eta Donostia Turismoarentzat.

Zinemagintzaren alorrean, argazkigintzako zuzendaritza onenaren Goya Saria lortu zuen 2018an **Handia** filmean egindako lanari esker. Argazkigintza onenaren dozenaka sari irabazi ditu hainbat jaialditan, esate baterako, Cearáko Zinema Iberoamerikarrako Jaialdian (Brasil), 2016an, **Amama** filmeko lanarengatik; Budapesteko Nazioarteko Jaialdian eta Greziako Naoussako Nazioarteko 11. Zinema Jaialdian, bietan 2014an, **Cólera** lanarengatik; Olavarríako Film Laburren Nazioarteko Jaialdian (Argentina), 2010ean, **Asámara** film laburrengatik; edo Torontoko Wildsound Zinema Jaialdian, 2009an, **Autorretrato** lanarengatik.

FILMOGRAFIA (hautatuta)

Dantza (Telmo Esnal, 2018)

Handia (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)

Amama (Asier Altuna, 2015)

Acantilado (Helena Taberna, 2015)

Loreak (José María Goenaga, Jon Garaño, 2013)

El Método Arrieta (Jorge Gil Munárriz, 2012)

Urte berri on, amona (Telmo Esnal, 2011)

Bi Anai (Imanol Rayo, 2011)

Lucio (Aitor Arregui, José María Goenaga, 2007)

Aupa Etxebeste! (Aiser Altuna, Telmo Esnal, 2004)

El maratón del Sáhara (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2003)

La pelota vasca (Julio Medem, 2002)

LAURENT DUFRECHE

Hendaia (Frantzia), 1969

Zinema eta telebista muntatzailea, publizitatearen arloan lan egiten hasi zen Channel Grafix ekoizpen-etxerako, eta, gutxira, Madrid Film zinematografia-laboretegiatako bideo-zuzendari izan zen. 2010 eta 2014 artean muntaketako irakasle izan zen Madrilgo ECAMen eta 2013an Hendaiaiko Zinema Jaialdiaren zuzendarikide.

Zinemaren arloan, film laburrak eta luzeak uztartu ditu, bai dokumentalaren alorrean, bai fikzioan; lehen-dabizi muntaketa-laguntzaile eta ondoren muntatzaile titular lanetan. Telebistaren munduan dokumental eta telesailetan muntatze zein errealizazio lanak txandakatu ditu.

Film luze honekin Dufrechek beste proiektu bat gehitu dio Txintxua Films ekoiztetxearekin duen harreman estuari: dagoeneko **Amama** (2015) film luzean eta **Soroa** (Asier Altuna, 2013), **Zela Trovke** (Asier Altuna, 2013) eta **Taxi?** (Telmo Esnal, 2007) film laburretan lan egin du. Oraingo honetan berriro ere Koldo Almandozekin lan egin du, **Sipo Phantasma** (2016) eta **Hubert Le Blonen azken hegaldia** (2013) ekoizpenetan kolaboratu ostean (biak Txintxua Films etxearenak).

2018ko muntaketa onenaren Goya Saria, **Handia** engatik.

MUNTAKETA

FILMOGRAFIA (hautatuta)

Dantza (Telmo Esnal, 2018)

Handia (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)

Amama (Asier Altuna, 2015)

La isla (Ahmed Boulane, 2014)

Cinéma vérité, vérité (Elena Manrique, 2013)

Bertsolari (Asier Altuna, 2011)

Cinco metros cuadrados (Max Lemcke, 2011)

Casual Day (Max Lemcke, 2007)

El cielo gira (Mercedes Álvarez, 2004)



JATORRIZKO MUSIKA

ELENA SETIÉN eta IGNACIO BILBAO

Elena Setien eta Ignacio Bilbao musikari donostiarrek partitura partekatuko dute **Oreina** lanean. Mantra, modura funtzionatzen duen soinu-banda minimalista eta atmosferikoa konposatu dute.

Koldo Almandozek Bilbaori deitzea erabaki zuen bere aurreko filmean (**Sipo Phantasma**) lan egin ondoren, eta Elena hautatu zuen alderdi esperimentalagatik. Zuzendariak filmaren emozioak bideratzeko erabili dituen irudien zerbitzura sortu dute musika, hain zuzen ere, Setien eta Bilbaok, elkarrekin.

Rock, pop eta folketik datozen musikariek «erronka»tzat hartu dute esperientzia hau. Sintesi-lan bat izan da, osagaiak kentzekoa, **Oreina** lanaren kutsuari egokitzen zaion testura sotilaren bila. Hori lortzeko, gitarra elektrikoaz, biolinaz, sintetizadoreaz eta pianoaz baliatu dira.

Yon Vidaur-ek grabatu du **Oreina** lanaren musika Muir estudioetan. Setién eta Bilbaok zenbait musikari izan dituzte inspirazio-iturri musika hori konposatzeko, hala nola Greenwood (Radiohead taldeko kidea eta Paul Thomas Andersonen soinu-banden ohiko egilea), Sigur Ros edo Angelo Badalamenti.

ELENA SETIÉN (Donostia, 1977)

Elena Setien kantautorea, inprobisatzailea eta moldatzailea da. Lehen lau diskoak Little Red Suitcase duoarekin argitaratu zituen. Elena duela gutxi itzuli da Donostia jaioterrira, ia bi hamarkadaz atzerrian bizi ondoren; hamahiru urtean Danimarkan egon da zehazki, eta belaunaldi berriko jazz alternatiboaren artista ospetsu bihurtu da han.

Danimarkako jazzaren grammy sarietarako izendatu dute jazz bokala, cross-over estiloa eta edizio berezia kategorietan 2008, 2009, 2012 eta 2013an.

Temporarily Out of Order diskoak Danimarkako Arteen Ministerioaren saria erdietsi zuen 2009an. *Dreaming Of Earthly Things* (2016) arrakastatsuen ondoren (kritikariek zein entzuleek goraiatu zuten), album berri bat lantzen ari da, folkie eta soilagoa, 2019an kaleratzeko.

Bere ibilbidean hamar herrialdetan baino gehiagotan eman ditu kontzertuak Elenak, eta jaialdi askotan hartu du parte. Musikari gonbidatu gisa musikari askorekin aritu da elkarlanean, orobat (Anders Filipsen, Markus Pessonon Hendektet, Jesper Løvdal, Hugo Rasmussen, Kresten Osgood, Cooper More, besteak beste).

IGNACIO BILBAO (Donostia, 1976)

The Great Destroyers, Microcastles eta Rumano Power bandetako kide izan zen, eta 2013an Grande Days martxan jarri zuen Lotus Plazarekin jo ondoren (gaur egun elkarrekin jotzen jarraitzen dute). Proiektu horren fruitua Mänttäk izan zen. Grande Dayseko kideek osatzen dute banda eta Alvaro Sau zinemagileak ere bertan parte hartzen du.

2014an, hamar urte igaro ostean, Iñigo Medinarekin berriro elkartu zen Disco Estupendon eta Jazpana Festen jo zuten, aurretik Grande Daysek jo zuen jaialdi berean.

2015ean Las Chicas de Pasaik taldearentzat hainbat kantu sortu zituen, *Hiztegi Poetikoaren* (2015) soinu-banda, hain zuzen ere. Handik gutxira Koldo Almandozek *Sipo Phantasmaren* soinu-bandaren zati bat konposatzea proposatu zion, eta Yon Vidaurrek eta biek grabatu zuten Muir Studiosen.

2016an Miguel Mariñorekin *FOMOS FICANDO SÓS* ikus-entzunezko performancea egin zuen Ta- bakaleran.

2016an Grande Daysek bere lehen estudio-lana argitaratu zuen: *Spark*. Bonberenea estudioetan grabatu zuen Karlos Osinagak (Lisabö), Pau Rodriguezen (Za!) kolaborazioarekin batera.

Gaur egun moda-marka ezagun baten promozio-bideoetarako konposizio batzuk sortzen ari da.



EKOIZLEA

MARIAN FERNÁNDEZ PASCAL

Iruña, 1974

Nafarroako Unibertsitatean Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatu zen, eta Film Certificate ikasketak egin zituen ondoren New Yorkeko Unibertsitatean. 2008an Asier Altunarekin batera Txintxua Films sortu zuen. Bere film guztien ekoizle exekutiboa da.

2000 eta 2005 bitartean **Sogecine** ekoizpen-taldeko kide izan zen honako proiektu hauetan: **Los otros** (Alejandro Amenábar, 2001), **Mortadelo y Filemón** (Javier Fesser, 2003), **Mar adentro** (Alejandro Amenábar, 2004). Filmetako ekoizpen-buru izan zen **Cosmos** (Diego Fandos, 2007), **Casual Day** (Max Lemcke, 2006) bezalako filmetan.

Nafarroako Punto de Vista zinemaldiko ekoizpeen-koordinatzailea izan da 2013-2017 bitartean.

Plentziako Mikrofilm Short Festival, Donostia Zinemaldia eta Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko epaimahaikide izan da.

Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazio graduan kolaboratzen du irakasle gisa. Larrotxeneko zine produkzio tallerrak eman ditu.

Marian Fernandezek eta Koldo Almandozek 1997an egin zuten lan elkarrekin lehen aldiz **Razielen itzulera** film laburrean, eta orduztik, askotan aritu dira elkarrekin hainbat projektutan.

EKOIZTETXEA. TXINTXUA FILMS

Marian Fernandez ekoizleak eta Asier Altuna zuzendariak sortu zuten 2008an, eta honako film luze hauek ekoitzi ditu: **Sîpo Phantasma** (2016); **Amama** (2015), Donostia Zinemaldian Euskal Zinemaren Irizar Saria jaso zuena; eta **Bertsolari** (2011), Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialen aurkeztu zutena.

Nazioarteko zinema-jaialdietan ibilaldi luzea izan duten eta hainbat sari jaso dituzten dozena bat film labur ere ekoitzi ditu Txintxuak:

Plâgan (Koldo Almandoz, 2017)

Gure Hormek (Las chicas de Pasaik, 2016)

Soroa (Asier Altuna, 2014)

El último vuelo de Hubert Le Blon (Koldo Almandoz, 2014)

EZIN Neighbor (Asier Altuna, 2014)

Zela Trovke (Asier Altuna, 2013)

Hamaiketakoa (Telmo Esnal, 2012)

Deus et machina (Koldo Almandoz, 2012)

Artalde (Asier Altuna, 2011)

La Gran Carrera (Kote Camacho, 2010)

Amona Putz! (Telmo Esnal, 2009)

Taxi? (Telmo Esnal, 2007)



HARREMANETARAKO DATUAK

EKOIZTETXEA

TXINTXUA FILMS

Euskadi etorbidea, 53, 4A 20110, Trintxerpe, Gipuzkoa

www.txintxua.com

txintxua@txintxua.com

+34 943 39 33 80

PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA

Andrés García de la Riva

prensa@txintxua.com

+34 672 376 162

BANATZAILEA

GOLEM DISTRIBUCIÓN

www.golem.es/distribucion

golem@golem.es

+34 948 17 41 41

